eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

# HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

EHU/UPV

- Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko zuzendaritza: UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzako Campus Bizia Lab Programa.
- EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko hainbat lankide: Garapen Iraunkorrerako Literatura.
- Haur eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasleak eta lanean dabiltzan profesional eta biterkariak.

# Garapen iraunkorrerako literatura

- Graduetako ikasleei ikusaraztea Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) arteko loturak.
- GIHen ildoko lanak heziketa literariorako hautatzeko gai izatea.
- Etorkizuneko haur eta gazteengan GIHekin lotutako balioak sustatzea.
- Hezkuntzan ari diren bitartekariei tresnak eskaintzea, irakurketa-planetan zein eskoletan balia ditzaten.

## Literatura(k):

- Helburu hezigarria du, eskola-garaian dagoen publikoari zuzentzen zaionez gero.
- Eredu narratibo eta poetikoak eskaintzen ditu.
- Talde-iruditeriarako sarbidea da.
- Kulturaren gizarteratzea sustatzen du.

Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Síntesis.

## Garapen Iraunkorrei dagokienez:

- Sormen literarioa Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lotu dugu.
- Gai globalek erakusten dute gizarte iraunkorragoak lortzen lagunduko diguten gaitasun, jarrera eta portaera berriak behar ditugula.
- Hezkuntza-sistemek eskakizun horiei erantzun behar die gizarte jasangarriagoak lortzeko.

**Ekoitzitako produktuen xehetasunak:**

- Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Haur eta Gazte Literatura uztartzen dituzten Gradu Amaierako Lanen tutorizazioa.
- *Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika* irakasgaian Haur eta Gazte Literatura eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen arteko lotura lantzeko ekintzak.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Haur eta Gazte Literatura ardatz dituen kongresu eta jardunaldien antolaketa.
- Garapen Iraunkorreko Helburuak oinarri hartuta literatur giden argitalpena.




# Garapen Iraunkorrerako Literaturaren Gida (1-6 helburuak)

http://hdl.handle.net/10810/54613

https://klasikoa.eimakatalogoa.eus/Bideoak/36908ccf16bc1348a58ee721d3ea49af_58054.pdf

- Balio sozialak eta balio literarioak erdigunean jarri ditugu.
- Haur eta gazteen ikuspegi kritikoa eraikitzen lagundu dugu, literatura-testuen alderdi estetikoei eta literarioei ere begiratuta.
- Unibertsitateak gizarteari transferitutako jakintzari ekarpena egin diogu, Unibertsitatearen eginkizun soziala kontuan izanik.
- Haur eta Gazte Literatura funtsezko erreminta da belaunaldi berriei txiki-txikitatik Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) helarazteko.